

KONTROL MOZIOA

Udalaren jabegoko lekuetako izenak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Pasa den abenduaren 14ean Gune Publikoen Batzordean hizpide izan zen Loiolako “Urdintzu” zubiaren izena, hain zuzen ere areto honetan urriaren 27an ezagutarazi genuen moduan, Loiolako kuarteletara pasatzeko zubian kartel berria jarria zegoelako: “Puente de Alfonso XIII” zioena, eta hiriko armarría izan beharrean Espainiar estatukoa zuena; hau da berezko izena islatzen ez duen-, hizkuntza irizpideak betetzen ez dituen- eta Donostiako armarría jasotzen ez duen kartela

Batzordean bertan zinegotzi ordezkariak azaldu zuen bezala Loiolako zubi horrek “Urdintzu” izena du, hala jarri baitzion Donostiako Udalak, gaur bezala Udalbatzan bildurik, 1998an. Horrekiko koherentziaz ere aipatu beharra dago, zubiari dagokion kartela jarri berri duela, berezko izena eta Donostiako armarría txukun erabiliz.

Ez da Udalaren jokabidea, bereak ez diren jabegoei izena jartzea eta, beraz, ondoren Defentsa Ministerioak berea bailitzan jokatu duen arren, oinarria badago zuba Udalarena dela esateko. Zer esanik ez, izenari dagokionez, aspaldiko toponimoa dela entzutea besterik ez dago, eta inguruko baserri bati dagokiola dokumentatua dagoen moduan. Beraz, Espainiar estatuko Defentsa Ministerioak bere eremua babestu nahian dituenak eta ez dituenak zapaldu dituela, Donostiatik laster joango direlakoan egon arren, alde egin bitartean, Udalari dagokiona ongi defendatzea badagokio Udalbatza honi.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - -
20003 Donostia

2/

* Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Loiolako Urdintzu izeneko zubiaren jabegoa udalarena dela argitze aldera, beharrezko prozedurak eta kudeaketak egin ditzala aurrerantzean, Espainiar estatuko Defentsa Ministerioaren zein beste edonoren aurrean, hala egiaztatua gera dadin.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia